

## Haur Hezkuntzako Gradua

2019-2020 ikasturtea



### **HAURREN AURKAKO SEXU-ABUSUAK GAUR EGUNGO JENDARTEAN ETA HEZKUNTZA SISTEMAK HONEKIKO DUEN JARRERA**

#### **ERANSKINAK**

**Egilea: Maitane Garcia Herce**

**Zuzendaria: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor**

Leioan, 2020ko maiatzaren 27an

## 1. ERANSKINA

### Haurren Kontrako Sexu Abusuen inguruko ikerketa lana

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) Haur Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana burutze aldera, nik, Maitane Garcia Herce-k ondorengo galdetegia aurkezten dizut.

Haur Hezkuntza zein Lehen Hezkuntza jarduten duen irakasle orok bete dezake galdetegia.

Pribatutasun oharra:

Aurkezten zaizun inkestaren helburua haur eta gazteen kontrako sexu abusuen prebentzio, detekzio eta jardutearen inguruko formakuntza beharrak ikertzea da. Jakin anonimotasuna bermatua dagoela eta zure parte hartzeak ikerketa hau aurrera eramatea ahalbidetuko duela.

Hori horrela izanik aldez aurretik eskerrik asko zure laguntzagatik.

Ikasketak (lizentziatua, diplomatua, etab.):

- Haur Hezkuntzako Gradua  
 Lehen Hezkuntzako Gradua

Beste ikasketarik?

---

Sexua:

---

Adina:

---

Probintzia:

---

- 1) Gazteen kontrako sexu abusuen inguruko formakuntzarik jaso duzu noizbait?
  - a. Bai
  - b. Ez
- 2) Bizi izan duzu inoiz zure ikastetxean haurren kontrako sexu abusu kasuren bat?
  - a. Bai
  - b. Ez

- 3) Ezagutu izan duzu noizbait hurbiletik haurren kontrako sexu abusu kasuren bat ikastetxetik kanpo?
    - a. Bai
    - b. Ez
  - 4) Haurren kontrako sexu abusua definitzeko kriterio nagusiak hauek dira:
    - a. Biktima eta erasotzailearen arteko edozelako kontaktu, nahiz eta fisikoa izan edo ez
    - b. Adin txikikoaren onarpen eza
  - 5) Zein adinetan uste duzu hasten dela abusua?
    - a. Edozein adinetan
    - b. Haurtzaro eta aurre nerabezeroan (10-11 urte)
    - c. Nerabezeroan (12-18 urte)
  - 6) Zein testuingurutan ematen dira abusuak gehien?
    - a. Familia barnean
    - b. Familiatik kanpo
  - 7) Eraso hauek gehien batean ezezagunek burutzen dituzte
    - a. Bai
    - b. Ez
  - 8) Sexu abusuak gehiago ematen da
    - a. Neskatoetan
    - b. Mutikoetan
    - c. Bi generoetan berdin
  - 9) Erasotzaileak orokorki gehiago dira
    - a. Gizonezkoak
    - b. Emakumezkoak
    - c. Bi generoetan berdin
  - 10) Zein uste duzu dela abusatua izan diren pertsonen portzentaia?
    - a. Biztanleriaren %20 gutxi-gorabehera
    - b. %20 baino gutxiago
    - c. %20 baino gehiago
  - 11) Ezagutzen al duzu abusu sexuala ebaluatzeko metodorik?
    - a. Bai
    - b. Ez
  - 12) Haur baten testigantza heldu batena baino sinesgarriagoa da
    - a. Egia
    - b. Gezurra
  - 13) Gaur egun lehen baino sexu abusu kasu gehiago daude
    - a. Egia
    - b. Gezurra
  - 14) Gure inguruko haur bati gertatuko balitzaio jakingo genukeela uste duzu? Zergatik?
- 
- 15) Haurren kontrako erasotzaileak ezin ditzakete beraien bulkada sexualak kontrolatu
    - a. Egia
    - b. Gezurra

- 16) Haurren kontrako abusatzaileak burutik gaixo daude edo desoreka mental handia dute
- Egia
  - Gezurra
- 17) Zenbait abusatzailek beraien biktimen adin bera dute
- Egia
  - Gezurra
- 18) Zure gelan abusatzailea eta biktima izango bazenitu, zer egingo zenuke? Zer nolako erabakiak hartuko zenituzke?
- 
- 19) Adin txikiko biktimak gertatzen hari zaienaren erantzule dira, gertatzen hari aiena saihestu dezaketelako
- Egia
  - Gezurra
- 20) Askotan, haurrek sexu abusuaren biktimak izan direla asmatzen dute, batzuetan heldu baten eraginpean
- Egia
  - Gezurra
- 21) Haurren kontrako abusu sexualen informeen erdia baino gehiago faltsuak dira
- Egia
  - Gezurra
- 22) Haurren kontrako sexu abusuak gehiago ematen dira maila ekonomiko baxuko eta arrisku sektoreen artean
- Bai
  - Ez
- 23) Haurrak abusua kontatzen duenean ohikoa da haurrak sinestea eta protokoloak zehazten duen moduan jardutea
- Bai
  - Ez
- 24) Ezagutarazten diren kasuak beti salatzen dira
- Bai
  - Ez

Ez salatzekotan, zergatik izan daiteke?

- 
- 25) Salaketa baten aurrean jarduten duten profesionalek problematikarekiko formakuntza zehatza dute
- Bai
  - Ez
- 26) Fiskaltzak salaketa bateratu egiten du behar diren frogen eskaerak eginez
- Bai
  - Ez
- 27) Salaketak normalean aurrerako bidea izaten dute, eta ahozko epaiketetara iristen dira
- Bai
  - Ez

- 28) Hezkuntza protokoloan badira tratu txarrak antzemateko irizpide taula desberdinak eta taula horietan argi agertzen dira tratu txar bakoitzari dagozkionak
- a. Bai
  - b. Ez
- 29) Gaur egun Erkidegoan indarrean dagoen protokoloak 10 urte baino gehiago ditu
- a. Bai
  - b. Ez
- 30) Haur hezkuntzako haurrekin sexu abusuen gaia lantzea garrantzitsua dela deritzozu? Lantzekotan nola egingo zenuke?
- 
- 31) Problematika honen inguruko kontzientziazio falta dagoela uste al duzu? Zergatik izan daiteke? (Deskriba ezazu laburki)
-